



Anporta

etxebizitza

Aldaerak: Anportako errota
Ahozkoa: Anporta

“... la casa molino denominada de Anporta, cuya planta solar con inclusión del estolde mide setenta estados, en jurisdicción de Berriz... contiene tres piedras de moler...”
DJE 6/163 or. (1892)



43° 10' 28"

2° 36' 0"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honi buruzko lehendabiziko aipu dokumentalak 1796an aurkitzen ditugu, *Anportia* (BAHP, A65/7.) eta urte horretako su-errol-dan *Anportea*. Hortik aurrera, beti izen bera mantendu da aldaketa gutxi jasan dituelarik. Noizbehinka, *Molino Anportea* (1910, BUA, RU) moduan agertzen da. Ez dugu ahaztu behar *Arrierreka* ubidearen ondoan kokatuta dagoela, eta errota-ingurua dela; bertan, honako hauek aurkitu ditzakegu, besteak beste: *Erroteta* (**Ikus Erroteta**), *Errotazar* (**Ikus Errotazar**), *Olazarra* (**Ikus Olazarra**) eta *Olabarri* (**Ikus Olabarri**). Auzotarren artean *Anporta* da ahoz-ko forma erabiliena.

Bizirik dirauen XVIII. mendeko errota da, XX. mendearen erdialdean egindako berriztatze-lanen ondoren aldatuta badago ere. Oraindik bi errotarri mantentzen ditu, eta chotze-lanetarako beharrezkoak diren ubidea eta andapara ere bai. Produktorako eraikina izateak ziurrenik izango zuen bere eragina etxearen itxuran eta sarrera nagusia kokatzerakoan. Izan ere, alboko fatxadetako batean dago, eta horretan ere, alboan. Etxea xumea da, beheko solairuak harria bistan du, eta bestea luzituta dago. Leihoak ere hala ditu, goikoak zein behekoak. Baorik berezienak sarrerak dira, nagusia zein bigarren mailakoa, biak harlanduekin eginak. Hala ere, lehena da dotoreena, harkantoi eta guzti ateburuari eusteko.

toponimia

Nahiz eta gaur egun etxeari Anporta esaten zaion dokumentazioa argia da eta errota honen jatorrizko izena, 1796tik dokumentatua Anportia da. Inguruko euskalkiaren kontrako bidea segitu zuen izen honek eta gero Anportea bihurtu zen eta, azkenik, Anporta.